BERRIA
Asteartea, 2020ko otsailaren 18a

JON URBE / FOKU

# «Txio bat nahikoa da gure kultur sistema osoa hankaz gora jartzeko»

**Felipe Juaristi** • Idazlea

Juaristi 2013ko udan hasi zen idazten 'Erbesteko elurra' (Erein), Madril sargori betean. Erredentzioari buruzko nobela bat eta euskal kultur munduaren inguruko «satira», egilearen hitzetan, maitasunari buruzko gogoetak eta antzerki dialogoak tartekatuta.

**Amagoia Gurrutxaga Uranga**
*Donostia*

Podemos indarra hartzen ari zen Espainiako hiriburuan, Lavapies auzoan nabari zitekeen mugimenduaren pil-pila. Han ikusi zuen Felipe Juaristik (Azkoitia, Gipuzkoa, 1957) Howard Zinnen *Marx Sohon* lanaren bertsio berezia: *Marx en Lavapiés*. Han idatzi zuen *Tomas eta Benito Lavapieseko taberna batean* antzerki testu laburra, Hobbes eta Spinoza filosofoak elkarrekin solasean jarriz. Eleberri baten ideia ere egonaldi hartan etorri zitzaion. «50-60 bat folio idatziko nituen Madrilen». Gero, Euskal Herrira etorri, eta maitasunari buruzko saiakera bat idazteari ekin zion. Azkenean, nobela bat eman du.

***Erbesteko elurra* hau erredentzioari buruzko lan bat dela esana duzu.**

Erredentzioaren ideia aspalditik neukan, baina ez nekien nola garatu. Historia bitan banatu zuen ETAk armak utziko zituela esan zuen egunak. Denok dakigu historia, hortik aurrera, diferentea izan dela, eta nire pertsonaiarentzat momentu egokia zela pentsatu nuen. Lagun bat abandonatu zuen behin –denok egin ditugu halako gauzak herri honetan–, eta horri heldu nion. Esajerazio handirik gabe heldu nion; gauza samur bat egin nahi nuen. Saldias musikaria erredentzioarekin nola lotu modu sinesgarrian, horrek eman dit lan gehien. Pertsona normal bat pentsatu behar nuen –Fermin Alberdi pertsona normaltzat har ote daitekeen ere–, esajeratu gabea.

**Aipatu duzun Fermin Alberdik badu neurrigabekeriatik, bada.**

Pertsonaia horrek esajerazio apur bat behar zuelako. Saldias punkiak ez, baina Ferminek bai. Fermin nartzisista bat da, bere burua bakarrik ikusten duena, eta dendena beti kontra daukala uste duena. Hor parodia bat dago, kazetari baten parodia. Alberdi tranposoa ere bada. Eta ez daki zer den maitasuna; ez daki emakumeekin tratatzen; ez daki zer den emakume bat. Gizonezkoei, egia esan, hori gertatzen zaie [barre txikiarekin].

**Zuri ere bai?**

Ez, niri ez. Bueno, ez dakit... igual bai, e? Maitasuna idealizatuta daukagu, eta ez dakigu zer den. Ez dakigu maitatzen. Maitasun klase asko dago, maitasuna eguneroko gauza bat da: zurekin dagoen jendeaz arduratzea. Ferminek ez daki hori egiten. Maitasunak asko du zain egotetik eta zaintzatik.

**Zeu ere kazetari aritua zara; Euskadi Irratiko burua izana ere bai. Fermin Alberdi *Ahotsa* izeneko egunkarian ari da lanean, euskarazko egunkari bakarrean. Eta Luis Berria du zuzendari.**

Hor bada keinu bat. Luis Berriaren pertsonaia keinu bat da, Martxelo Otamendiri egindakoa. Asko estimatzen dut. Asko sufritu duen gizona da, baina gero bere lana egin duena. Bestetik, euskal kulturan bi gauza bereziki inportante daude: BERRIA –eta aurretik, *Euskaldunon Egunkaria*– eta Euskadi Irratia. Bata instituzionala da eta bestea ez, baina uste dut euskal kultura ez litzatekeela den bezalakoa horiek gabe. Zutabeak dira. Horiek sostengatzen dute, nolabait, euskal kultura, hortik aparte ez dagoelako ezer.

**Euskal kultur sistema oso prekarioa dela esan nahi duzu.**

Bai. Zuk euskarazko liburu bat ateratzen duzu, eta horren albistea Euskadi Irratian edo BERRIAN emango dute. Non bestela? Inportantea baldin bazara, akaso, beste nonbait ere bai. Arazoa da oso fokalizatuta dagoela kultura. Batek huts egiten badu, kito.

Euskal kultura burbuila bat da, hori du arazo nagusia. Txio bat nahikoa da gure literatur eta kultur sistema osoa hankaz gora jartzeko, eta horrek esan nahi du sistema oso ahula dela eta oso harreman prekariotan dagoela oinarrituta. Gurea bezalako batean, sortzailea kulturatik bizi ahal izatea

mirari bat da. Hala zen lehen, eta orain ere bai. Ondo gaude? Bueno. Arazoa da edozer gauzak aztoratzen dituela euskal literatura eta euskal kultura.

Eta orain konturatu dira gure autoritateak irakurle gutxi dagoela euskaraz. Orain dela gutxi bilera eduki genuen hainbat eragilek Jaurlaritzako Kultura Sailekoekin, gai horri buruz. Nik nire diagnosia egin nuen. Arazoa da jendeak ez duela irakurtzen, ezer. Zergatik ez den irakurtzen, zergatik gaur egun katea hautsita dagoen, hori da kontua.

**Eta irakurtzen den gutxia erdaraz irakurtzen dela batez ere.**

Bai, baina hemen bakoitzak bere gremioaren defentsa egiten du. Gu hori pairatzen ari gara, baina hor egiturazko akats bat dagoela uste dut. Irakurketa planak huts egin duela? Ez da egon eta! Gero, belaunaldi kontua dago, eta horrek ere eragin handia dauka. Momentu honetan zein da idazle prototipoa eta zein da liburuen rola, orokorrean? Liburu errazak nahi dira, irakurleen pentsamendua sendotzeko balio dutenak, ikuspegi kritikorik gabekoak.

**Kritika aipatu duzula, Ian honetan bada kritikarik. Gogoetak ere sartu dituzu. Zeure burua zentsuratu al duzu batere?**

Badaude gogoetak ere, bai. Eta neure burua zentsuratu dut pixka bat, bai, baina politikoki zuzena izateko batere asmorik gabe. Azkenean, parodia baldin bada hasieratik bukaeraraino, eta pertsonaiak parodiak baldin badira, zuri berdin dizu arre edo so esatea.

**Azaldu berri duzun sistema prekario horretan, inor mintzeko beldurrik ez al duzu izan?**

Bueno... Idatzi dudana gauza serio bat da? Ez. Parodia bat da, topiko guztiei buelta eman nahi dien ironiaz josita. Ondo pasatu al dudan idazten? Ba bai.

**Alberdi euskal idazle handi baten lanari iruzkin txarra egiteagatik bidaltzen du Berria zuzendariak Madrilera, Saldiasen bila.**

Idazleak beren lanen inguruko iruzkin txarrengatik kexatu izana eta horrek ondorioak izatea, gertatu izan da. Ez nuen horretaz bereziki jardun nahi, baina. Fermin Alberdi liburuetan aditua izatea behar nuen, nobelari zentzua emateko, eta horregatik bihurtu nuen literatur iruzkingile. Hasieran, are jasangaitzagoa zen. Neuk ere ez nuen jasaten.

**Zure liburuari buruz orain artean argitaratu den kritika bakarraren arabera, euskal gizarteari kritika egiteko aitzakia bat da lan hau. Ados al zaude irakurketa horrekin?**

Liburua satira bat da. Gertatzen dena da satirarekin, umorearekin, problema handi bat daukagula euskaldunok. Nire ustez, bereizi egin behar da ironiaren eta sarkasmoaren artean. Ironia beti da behetik gorako zerbait, goikoak barregarri uzteko. Baina sarkasmoa, goikoek erabiltzen dute guri barre egiteko. Nire lan honetan ironia dago, ez dago sarkasmorik. Sarkasmoa boterearen arma bat da. Ironia pobreen arma da. Goikoen kontura barre egitea ironia edo satira da. Fernando Amezketarrak berak ere, botereari egiten zion barre, ironia lagun.

**Zure liburua leituta, euskal idazle batzuek izugarrizko boterea dutela ematen du.**

> **Gurea bezalako batean, sortzailea kulturatik bizi ahal izatea mirari bat da. Hala zen lehen, eta orain ere bai»**

> **«Liburu hau satira bat da. Gertatzen dena da euskaldunok problema handi bat daukagula satirarekin»**

Idazle batzuek hemen kristoren boterea daukate. Eta ez naiz hor gehiegi sartu, ez duelako merezi. Hori ez da hemengo kontua bakarrik, jakina.

**Euskal Herrian botere handien daukan kultur sistema ez da euskaraz mintzo, izan ere.**

Euskal idazleekin gertatzen den gauzarik okerrena da euskal kulturaren burbuila horretatik kanpo ez duela inork ezagutu ere egiten. Erdaraz idazten duten gehienei berdin zaie euskaraz zer egiten den; oraintxe bertan Espainian punta-puntakotzat jotzen diren hemengo idazleek ez dute euskarazko ezer irakurtzen.

**Oraintxe bertan Gipuzkoa plazan gaude. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arte eta Kultur Konseiluan bada euskaraz ez dakienik; zure liburu hau, euskarazko kultur proposamenak hartzeko gaitasunik ez daukanik.**

Mahai horretan Aritz Gorrotxategi laguna dago; uste dut euskarazko literatura ordezkatzeko deitu diotela. Nik baditut lagunak, nire lanak irakurtzeko gai ez direnak. Ni beraienak irakurtzeko gauza banaiz. Eta *baserritarrak* gu gara gero. Zuzenean erdaraz zergatik ez dudan idazten galdetzen didanik ere bada. Ez dudalako nahi! Betikoa da. Eta euskaraz idazten ez dutelako hemen idazleak baztertu egiten direla esaten da; gezurra denean, argi eta garbi.

**35 urte joan dira lehendabiziko liburua, *Denbora, nostalgia*, argitaratu zenuenetik. Nola ikusten duzu orain orduko idazle hasiberri hura?**

Egia esango dizut: nire bolada txarrak izan ditut, baina oso ondo pasatu izan dut idazten; batez ere, 1985etik 1990era bitarteko hura. Orduan sortu ziren *Obabakoak* eta beste asko. Orduan benetan sinesten genuen zerbait egingo genuela. Orain... Ni asko arriskatu naiz. Unibertsitatean lanean hasi, eta utzi egin nuen; irratian ere hasi nintzen, eta hura ere utzi nuen; *La Voz*-en ondoren; gero Baroja argitaletxean; gero autonomo... Horretan sinesten dudalako. Bizimodua atera dut, eta ez nago kexatzeko moduan. Orain, 1985era bueltatuz gero zer egingo nukeen... Unibertsitatetik ez atera, igual. Bakoitzaren hautuak dira. Azkenean, zergatik idazten dugu? Pentsatzen dugulako zerbait eman dezakegula, eta pentsatzen dugulako jendeak eskertu egingo duela, bestela beste inork ez lukeela idatziko. Badago maitasun behar bat ere, bai. Baina hori ofizio guztietan, ezta?

**Zu maitatua sentitu al zara?**

Bai. Ez dut uste etsaiek ere sekula errespetua galdu didatenik. Ez dakit orain etsairik ere ba ote den, egia esan. Garai batean gehiago izan zen horretatik. Liburuko azken antzezlana ere, Txillida eta Oteiza adiskidetzen direnekoa, zentzu horretan idatzita dago. Komedia ondo bukatzen da beti, badakizu, eta hau komedia bat da. Gizartea gu baino askoz gehiago aldatu da. Eta, azkenean, askoz errazago eman diogu buelta guk arazo politikoari, beste toki batzuetan baino. Batetik, gutxi garelako; bestetik, ez garelako gaizki bizi. Nik honekin egin ditut bakeak gizartearekin eta neure burua-rekin.